

BIESCAS GOGOAN: NEKANE ETA IÑAKIRI, AGUR.

Joxan Arbelaiz

lazko abuztuaren zazpian, Biescasen gertatutako trajediaren berriak astindu gintuen denok, ilunabar aldera. Pixkanaka, datuak zehatzago eta ugariagoak ziren eta haserako beldurrak eta zalantzak inoiz konfirmatu nahi ez genituzkeen albisteak eta berri lazkarriak bihurtu ziren: desagertutako pertsonen artean, bi errenteriar aurkitzen ziren, NEKANE MITXELENA ORMAZABAL eta IÑAKI MURUA GOÑI, senar-emaztegaiak, Andra Mari koraleko abeslariak, lagunekin mendira joandakoak eta Biescaseko kanpin horretan kanpatutakoak.

Gertatutakoaren handiak nahigabez betetzen gintuen ezagutzen genituenok, eta gure buruetan zalantza bat generabilen: zer gertatu ote zitzairen. Zoritxarrez, hurrengo eguneko albisteek egiaztatu zuten, pentsatzen ere ausartzen ez genuena: Iñakiren gorpua hurrengo goizean agertu zen, lehenengoen artean; Nekanerena, herriz, gaueko hamarrek aldera agertu zen. Biak ziren hilak.

Gaur, gertatutakoaren urtemuga betetzear dagoela, oroimenak min ematen digula oraindik, ezin dugu unea pasatzen utzi, mingarria izanagatik, eskontzeko asmotan ziren bi gazte hauen gogoramena egin gabe.

Eta trajediak bizitzeko modu asko dauden arren, besteei laguntza emanez bizitzea, ederrenetarikoa dela uste dugunez, era horretako testigantza dakargu gaur orrialde hauetara. Egun haiek laguntzaile bolondres bezala gertutik bizi izan zituen Joxe Mari Mitxelena Cazabon oiartzuarrarengana jo dugu, momentu horien larria ulertarazten lagun diezaigun.

• • •

GALDERA: *Joxemari, nolaz esplika daiteke, horrelako tragedia gertatzerik. Ez al zen horrelakorik aurrikusteko modurik eta era horretan ekiditerik?*

– Egia esan, gertatutakoa izugarria izan zen, euri erauntsia pentsa ezinezkoa izan baitzen. Baina tragedia gertatu ahal izateko ez zen eragin zuen faktore bakarra izan. Beste elementu batzuk ere kontuan hartu beharrekoak dira, esplikazioak errezeziak gerta ez daitezten.

Esaiguzu, bada, zeintzuk diren eragin zuten elementu guzti horiek eta zer garrantzia izan zuten, zure ustetan.


– Gertatutakoa ulertzeko, sakanaren egitura ezagutu behar da aurretik. Sakan hau, goitik behera datozen hiru uharren baturaz osatzen da. Erditik, handiena eta luzeena dator, ASON

izenekoa, 10 km ingurukoa; ezkerretik, SETES izeneko uharrea elkartzen zaio; eta eskubitik LA SELVA izenekoak bat egiten du beste biekkin. Hiruak elkartzen direnean ARAS izeneko osatzen da, haran osoa izen horrekin ezagutzen bada ere.

Idea argiago bat egin dezazun, Oiartzun ibaiarekin aldera ezazu, ibilbide malkarragoa duela kontuan harturik, noski. Irudika ezazu, ASO uharra Oiartzun ibaia dela, eta ezkerretik gehitzen zaion BETES, Txikiertitik datorren ibaiadarra. Eskubitik, Lartzabalgo bidegurutzean elkartzen den ibaiadarra, LA SELVA dela. Hiruak elkartzen direnean, ibilbidea malkarragoa egiten da eta desnibela, momentu horretan % 10koa da.

Sakan horretako uharre edo torrentea bideratzeko ubide artifizial bat eta mailakatua eraiki zen. Sedimentuak geldiarazteko 22 urtegi osatua, horietako garrantzuitsuenak 11 metroko altuerakoak eta 40 metroko zabalerakoak. Itxura ederreko ubidea, baina egiz, ahulagoa gertatu dena.

Bestetik, eta ez da garrantzi gutxienera, ubidea egiteko, torrentearen berariazko bidea alde batera utziaz, eskubira egiten baitzuen, ibilbide berri bat egin zitzaion, sakanaren kononaren erditik. Kanpina ibilbide berria eta uren berariazko ibilbidearen artean kokatzen zen.



Aras Aranaren egitura



Nekane eta Iñaki
Parisen.

Nahiko deskribapen argia egiten duzu, nik uste. Baina horrelako sarraskia gertarazteko gertakari atmosferiko oso bereziak jokatu behar izan zuten ez al da?

– Noski, noski. Adierazi dizkizudan ibarraren egitura eta ubide berriaren kokapena kontuan hartu beharreko elementuak dira, gero ulertzeko gertatutakoa; baina baldintza eta zirkunstantzia oso bereziak gertatu izan ez balira etzen horrelakorik gertatuko.

Euri erauntsia gertatu zen, abuztuaren 7aren arratsaldeko zazpiretan. Aran guztian oso intentsoa izan bazen ere, bereziki bortitza gertatu zen BETES uharraren erdiko ibilbidean, zeinetan metro karratuko erori zen euriak 520 litro emango lituzke ordu betean. Honela 8 minutuz bota zuten, 69 litro emanaz. Ondorengo 22 minututan beste 8 litro bota zituela gehitu behar dugu. Bitartean eta egun guztiko euri jasa Biescasen 160 litroetara iritsi zen bakarrik, horrela esan badaiteke. Ideia argiago bat izan dezagun, alderatzen baditugu datu hauek Donostian Ekainaren 1ean, azkeneko uholdeak gertatu zirenean eskeini zitzaizkigun datuekin, ikusten dugu Donostian 2 ordutan 180 litro erori zirela eta Betes uharraren erdiko ibilbidean 187 litro bota zituela ordu erdiz eta 250 litro ordu betean. Honi gehitu behar dizkiogu beste uharretan botatakoa.

Datuak ikaragarriak dira, baina “Instituto Superior de Investigaciones Cientificas”-ek abenduan argitaratu zuen informean dio, abuztuaren 7an gertatu zen bezalako euri jasa 144 urtetik

behin espero daitekeela Pirenean eta 160 litro metroko 9 urtetik behin gertakorra dela.

Horrelako erauntsiak erakarri zuen ARAS uharraren ur-erama-na, beste hiruak bat egiten duten unean eta uharraren ibilbidea malkarrena den momentuan 500 m segundukoa zela, kalkulatzen du aipatu informean; eta gainera, ur-emari horren % 75 BETES uharretik zetorrela, ibar osoaren azaleraren % 28, 7 besterik ez bada ere. Informean garbi dio, kasu guztitan ere ur-emari hori ubidearen kapazitatearen oso gainetik zegoela, honen kapazitatea kalkulatu baitzen 100 m. segunduko.

Garbi dago, beraz, lehen egin duzun sakana eta ubidearen egituraren deskribapenak kontutan hartuta, ondorioak larriki behar zutela izan. Baina nolaz gertatu zen hori? Torrentearen eta ubidearen urgainezteek bakarrik eragin al zuten gertakaria, ala sedimentatutako materialeek zerikusia izan al zuten urek garraiatu zituztenean?

– Urak zerikusi handia izan bazuen ere, bigarren faktore nagusia izan zen sedimentuak eusteko eginiko urtegi guztiak behera etorri zirela. Horrek ekarri zuen, bertan sedimentatutako materialeak garraiatuak izan zirela sakanaren behekalderaino, bertan presa bat osatuz eta ostopatuz ubide artifizialerako bidea. Lehen aipatu dizudan informean horrek, serioena gai honi buruz irakurri ditugunetan, kalkulatzen du 50.000m materiale garraiatu zirela urtegietatik. Honi gehitzen bazaizkio, ibilbide berri bat irekitzekoaz, urak garraiatu

zitzen lur morrenikoak, 68.000 m sedimentu eramanak izan ziren. Hauei 1,8 edo 2ko dentsitatea aplikatuz gero, kalkula daiteke 130.000 Tm garraiatu zituela urak.

Aipatu behar da, iazko uztaila ohi baino hezeagoa izan zela, eta lurra horrengatik busti xamarra aurkitzen zela. Horri esker, lurrak etzuen ura txukatu eta behera korritzen utzi zuen, ondorioz lubizirik gertatu etzela. Halakorik gertatu izan balitz okerragoa zatekeen oraindik.

Beraz, urtegieta sedimentatutako materialeek eragin izugarria eta tamalgarria izan zuten, torrentearen ubidearen zuzenketak berariazko ubidea errespetatu ez izanak bezalaxe.

Batek du inpresioa, faktore asko jokatu bazuten ere, tragedia hau aurrikusi eta ebita zitekeela.

Joxemari, gertatutakoa ulertzen lagundu diguzula uste dut. Baina zuk nolaz bizi izan zenuen momentu hori? Hainbestearinokoa izan zitekeela pentsatu al zenuen? Non harrapatu zintun erauntsiak?

– Egia esan, Jacara oporretan joan nintzen familiarekin, Abuztuak 1ean, lehenengo hamabostaldia pasatzeko asmotan. Ordurarteko egunak oso onak izan ziren, baina Abuztuak zazpia ilun zen eta egun horretan bakarrik bota zuen euria.

Eguraldia txarra zenez, egun horretan “S. Juan de la Peña” ikusteko asmoz habiatu ginen.

Arratsaldeko zazpitan euria hasi zitzaigun eta zerua erabat ilundu zen. Baina, batez ere, ikusi genuen ilargi erdi baten formako kortina beltza eta erabateko erauntsia ari zuela, Pirineo aldean.

Jacarako itzulera euripean egin genuen eta karabanan, baina izandako ekaitzaren ondorioez inolaz ere ohartu gabe.

Nolaz, bada, hasi zineten gertatutakoaz ohartzen?

– Arratseko hamaiketan anbulantziak entzuten hasi ginen. Guk alokatutako etxea ospitalearen bidean aurkitzen baitzen eta gau guztia lorik egin gabe eman genuen. Baina lehenengo berri zehatzak hurrengo egunean izan genituen, ogi bila jetsi nintzenean.

Jakin nuen, orduan, gertakari tamalgarriaren handitasuna zen-baterainokoa zen eta laguntza beharrezkoa zela. Iadanik bolondres ugari joana zen Biescasera eta Sabiñanigora, erreskate lanetan laguntzeko asmoz, eta momentuan Jacan beharrezkoa ikusten zela bolontarioen lana. Gehiegi pentsatu gabe etxera joan nintzen emazteari gertatutakoa adieraztera eta “Kongresu Jauregira” joan nintzen, bolontario bezala eskeintzera. Han beste hamabi pertsonekin topatu nintzen, Jacan laguntzarako azpiegitura iadanik antolatzen ari zirenak.

Ordurako Agromaneko hiru pabelloietan Tanatorioa eratua zen, hildakoen gorpuak horietako batean kokatzen zirelarik, beste pabelloiak eginkizun eta zerbitzu desberdinetarako erabiliz, familiak jasotzeko eta laguntzeko. Koordinazio lanak eta familien lehenengo harrera lanak Kongresu Jauregitik egiten ziren.

Biescasen eta Sabiñanigon aurkitutako gorpuak horrerako bideratzen hasi ziren eta goizeko zortziretako hogeitaziren azaldu-takoak eta pabelloi horretan zetzatenak.

Zein izan zen haserako momentu horretan zure ardura eta zeintzuk ardura horren eginkizunak?

– Lehenengo momentutik, hizkuntzak eta gertutasunak duten garrantziaz oharturik, agindu zidaten, euskaldunen familietaz ardura nendila. Pentsaten baitzuten, euskaldunen presentzia lur horietan handia delako, hildako eta desagertutakoen artean euskaldun ugari izango zela. Lehenengo ordu horietan Lizarreko pertsona baten gorpua agertua zen eta familia horren laguntzan zernahirako prestatu nintzen.

Familiarekiko laguntza honez kanpo, iristen ziren beste hildakoen gorpuak kotxetatik ateratzen genituen eta tanatorioan sartzen, forenseek garbi zitzaten eta ezaugarri fisikoak aztertu.

Familiarrak iristen zirenean, laguntzen genituen errekonozimendu erronda egiten. Esperientzia hau oso gogorra gertatzen zen, era guztietako erreakzioak ematen baitziren eta maiz errepikatu behar genuelako.

Haseran gorpuak banaka edo binaka iristen ziren. Baina goizak aurrera egin ahala, multzo handiagotan ekartzen hasi ziren. Horien artean, estalki gisa zeukaten plastikoko poltsa baten ustegabeko hausturaz haur baten gorputza ikusteak izugarri ukitu nindun eta bihotzaraino iritsi zitzaidan. Etxera joan nintzen, deskantsatzeko asmoz, baina ezin bertan egon eta berriro itzuli nintzen. Momentu horretan aurkitu nintzen Nekanen gurasoekin.

Lehenengo egun horretan etzen gelditzeko astirik izan, eta hamarrak aldera jende guztia eta forense ekipoa, nekearekin erabat leherturik, etxerako prest zen momentuan iritsi zen Nekaneren gorpua.

Hurrengo egunak desberdinak izan al ziren? Zuen arteko koordinaketa zerbaitetan aldatu al zen? Bestetik ere, kririkak irakurri ziren jendearen arteko koordinazio ezaz, jakingo duzu, noski?

– Egia esan, hurrengo egunetan agertutako gorpu kopuruaren kadentzia jetsi zen. Baina elementu berri bat agertu zen eta horrek aldarazi zuen ordurarteko funtzionamendua. Gertatu baitzen hildako baten errekonozimenduan familiarrek berea bezala ezagutu zutela berea etzen senidea. Honek ekarri zuen hatz-marken azterketa beharrezkoa gertatzea, eta honen



Andro-Mari Horalak
izugarritxo garrantzia
zuen biezat.

egiaztapenaren emaitza iritsi arte, senideek ezin zutela familiarren gorpua erretiratu.

Honen ondorioz, Izotz Jauregira eraman behar izan zituzten gorpuk, denbora luzeagoz gelditu behar baitzuten. Bertan dependentzia desberdinetan eratu eta zentralizatu ziren zerbitzu guztiak, eta familiarrei laguntza emateko gure lana erreztu zitzaigun.

Egun horretan, tentsio momentu bat gertatu zen, enbalsamadore ekipoak ezin ziolako lanari aurre egin, trasladatu behar ziren gorputz guztiak enbalsamaturik irten behar baitzuten. Zentzu horretan, beste enbalsamadore ekipoa lortzeko gure erreklamazioak bere helburua lortu zuen.

Eta aipatu duzun koordinazio faltaz, ez nuke nik horrelakorik esango, alderantziz baizik. Nere iritziz, dena hobetu daitekeela jakinda ere, ekipoen arteko koordinazioa eredugarria izan zen.

Bukatzeko Joxemari, zer suposatu du zuretzat bizi behar izan zenuen esperientzia? Izan al du eraginik zugan?

– Esperientzia oso gogorra izan zela ez da dudarik, 87 pertsona bertan hil zirela ez da ahaztu behar. Baina nahigabeen sorturiko solidaritateak indartsuak izateaz gain, irauten dute. Beraien artean elkar ezagutzen ez bazuten ere, egun horietako lanen bidez hildako gipuzkoarren senideak nik ezagutzen nituenez, elkartzen hasi ginen eta lehenengo urratsak elkarrekin ematen hasi, abokatu bakar bat hartuz. Gaur elkarlan

honek segitzen du eta eredugarria da askorentzat. Beraz, egun haietako esperientziak harrapatua nauka gaur ere.

Joxemariaren laguntza eskertu besterik ez daukagu, bai eman dizkigun argibideengatik eta baita eta bereziki, azaldu duen jarrerarengatik ere. Beregan eskertu nahi diegu lan horietan aritu ziren pertsona guztiei.

• • •

Trajedia hau gertutik bizi izan zuten Gurutze Altuna eta Luis Iparragirrek. Han zeudelako. Nekane eta Iñakirekin zirelako, haiekin joanak, egunak pasatzera. Adiskide ziren eta direlako. Beraiekin hitzegin dugu gertakariari buruz eta, barruan oraindik sendatu gabe duten zauria bada ere, hitzegin nahi izan dute, lagunekiko leialtasunak bultzaturik.

Kanpinean beraiekin aurkitzen zineten. Elkarrekin irtetzeko ohiturarik ba al zenuten? Aspaldiko laguntasuna al zenuten?

– Mutilen arteko adiskidetasuna aspalditik zetorrena zen, hamar urte baino gehiago zen elkar ezagutzen genuela eta, Agustinetan eratu zen gazteen koro batera Iñaki etorri zenean, adiskidetasun hau estutu egin zen eta areagotu. Nesken arteko adiskidetasuna mutilen bitartez gertatu zen.

Elkarrekin normalean ibiltzen ez baginen ere, mendira, oporretara eta abarreko irteetara batera joatea ohikoa zen. Batez ere, mendira joanez parrilladak egitea atsegin zitzaigun. Oso gogokoa genuen.

Zer delata aukeratu zenuten Biescaseko kanpina? Mendira joateko asmotan?

– Egia esan, ez dakigu “patuan” sinistu behar ote den ala ez. Beste aurreko opor guztietan baino gehiago begiratu genuen nora joan gintezkeen. Hasera batean, itsaso aldera joateko ideiarekin ginen, baina arrazoi desberdinengatik alde batera utzi genituen asmo horiek. Kanpin honen aukera egin bagenu, piztarenengatik izan zen. Inguruko beste guztiek ez baitzuten horrelakorik.

Nolakoak izan ziren uholde aurretiko egunak eta momentuak?

– S. Inazio egunez iritsi ginen Kanpinera eta bertan egin genuen egonaldia bereziki alaia izan zen eta oso eguraldi onak izan genituen. Gustora ari ginelako, egun batez luzatu genuen kanpaldia, Musika Hamabostaldirako entseu orokorrrak hurrengo bi egunetan zirelako. Horrela erabaki genuen eta etxera deitu genuen, eguerdi aldera, horren berri emateko. Kotxe bakar batez joanak ginen lauak eta berean denak itzuliko ginen.

Egun horretan, eguraldi txarra egiten zuenez, kanpinean gelditzea erabaki genuen. Siesta egin ondoren, kantari aritu ginen, batez ere mutilak, neskak lotsatiagoak bai ginen, dio Gurutzek.

Gainera, Luisek gehitzen dio, gogoan dut oraindik, kantatu genuen azken abestia korukoa zela, “El Diluvio de Noé”. Gaurtik begirata, badirudi zerbaiten premonizioa izan zitekeela.

Nolaz bizi izan zenuten gertakaria? Konturatu al zinetan arriskuren posibilitatez?

– Euri erauntsia handia izan zen, baina kanpinean etzuen hainbesterainoko iruditzen. Benetan handiena goiko herrian gertatu zen. Guk ikusi genuena etzen beste zenbaitetan baino handiagokoa. Bapatean, dendan ura sartzen hasi zitzaigun eta lurra txukatzen hasi ginen, eskura genituen errebistak horretarako erabiliz, bromen artean. Momentu batean, tabernara joatea ere pentsatu genuen, atertutakoan itzultzeko, baina gerta zitekeenaz, inolaz ere konsziente izan gabe. Derrepente, ur-uholdea sartzen hasi zitzaigun. Ohartzean, *irten behar da hemendik*, ohiukatu genuen denok. Luis atearen ondoan zen, atea eskuan zuela, baina denak elkarren ondoan ginen.

Instante batean, dendarik ez zegoen, ez kotxerik ere; hura ibai bat zen eta ez genuen iadanik elkar gehiago ikusi. Ez genuen Iñaki eta Nekaneren berririk gehiago izan. Instintiboki edo suertez, ez dakigu, eskubi aldera egin genuen arbol bati helduaz. Baina askatu ginen, denbora zerbaitera, urak geroz eta handiagoak zirelako eta garraiatutako materialeak kolpatzen gintuztelako.

Urak goitik behera eraman gintuen, lur-mutur bateraino Luis, eta ni, dio Gurutzek, zuhaitz bati helduta aurkitu nintzen

metro asko beherago eta mutiko bat ondoan nuela. Mutiko honen aitak atera gintuen.

Momentu honetan, uren mendean ginenean eta aldi guztietatik kolpeak sentitzen genituenean, gurea bukatutzat ematen genuen. Bakarrik familian pentsatzen genuen, gurasoetan, izango zuten penaz eta nahigabeaz. Oso momentu intentsoak izan ziren eta biok, bakoitzak bere aldetik, sentipen bera izan genuen.

Biescaseko polikiroldegira eraman gintuzten eta bertan arropak eman zizkiguten, uraren indarrez galdu bait genituen gureak. Biescaseko jendearen laguntza erabatekoa izan zen. Ahal izan zuten guztia eman eta egin zuten. Asko zor diegu.

Bertan informazioaren gurutzamendua egiten zen eta gure izen-deituren berri ematearekin bat, lagunetik galdera egin genuen. Erantzunik izan ez bagenu ere, hurrengo eguna arte ez genuen esperantzarik galdu.

Urtemuga betetzear dagoela, uholdea gertatu zenetik, nolako irudiz ikusten dituzute Iñaki eta Nekane? Nolako sentipenak dituzue zuengan?

Lehen esan dizugun bezala, aspaldiko adiskidetasuna izan dugu, dio Luisek, eta neretzat mutil jatorra eta entregatua zen, izan daitekeen lagunik onena. Nekane, izatez barnerakoiagoa baina Iñaki bezala entregatua eta langilea, konfiantza egin ondoren, hitzjario ederrekota eta hitzun egokia zen. Alaiak eta umoretsuak ziren gure arteko harremanak. Lagun normalak ziren.

Aipatu beharko genuke, Andra-Mari koralak izugarritzko garrantzia zuela bientzat. Horren partaide sentitzen ziren eta berarentzat lan asko egiñak ziren eta egiten zuten, idazkari eta direktibo bezala.

Horrezgain, familia oso gauza inportantea zen bien kasutan. Elkarriketa-gai nagusia zen, gurasoei buruz, hiloba berriaz, anaiarrebez. Bientzat, familiarekiko lotura izugarri inportantea zen.

Orain, gauza guzti horiek gogoratuz, galdera asko sortzen zaizkigu. Ez da erreza asumitzea beraiei gertatutakoa, gurekin batera zirela. Adieraz ezinezko zor baten sentipenak hartzen gaitu batzutan. Eta, esan behar dizugu, inguruan sentitu dugun jendearen babesak, bereziki Andra Mari famili horren ingurukoaren artean, asko lagundu digula egoera horretan. Gurekin eta baita Iñaki eta Nekaneren familiarekin jendearen portaera ona izan dela sentitu dugu, laguntza publikoen gabeziak nabarmenak izan diren bezala, alderantziz aldarrikatu bada ere.

Biescaseko trajediaren oiartzunak min ematen digunean oraindik, eta otoiak eta oroimenak bakarrik balio duten hontan: AGUR IÑAKI eta NEKANE. ✍